

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 163/2026 martxoaren 23koa. Onespena ematea Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzen 2026rako deialdiari

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak, bere eskumenen eremuan, enplegua sortzea, prestakuntza, turismo sustapena eta merkataritza eta eskulangintza bultzatzea helburu duten ekintzak eta ekimenak gauzatzeko, hori dena Arabako Lurralde Historikoan jarduera ekonomikoa pizteko.

Abenduaren 31ko 51/2013 Foru Dekretuaren bidez, Arabako eskulangintza sektorea arautu zen eta xedatu zen dirulaguntzak eman ahal izango zaizkiela eskulangileei edota eskulangintza enpresei haien egitura nahiz errentagarritasun, kudeaketa edo lehiakortasuneko baldintzak hobetzeko jardueretarako.

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak era integral eta dinamikoan ulertzen du eskulangintza, hots, sorkuntza, ekoizpena eta banaketa garatu behar dituen jarduera gisa, bai tradiziozko, bai gaur egungo ikuspegiari, ekonomia, gizarte eta kultura balioak bateratuz. Gainera, sail horrek eta sektoreak berak konpromisoa dute haren ikusgaitasuna sustatzeko, profesionaltasun, prestigio eta kalitatezko ingurune batean kokatzeko, eta haren bideragarritasun ekonomikoa garatzeko.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren jardun estrategikoetako bat da eskulangintza sektoreko inbertsio eta salmentetarako laguntza ematea.

Horretarako, 51/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikatuz eta sailaren helburuak betetzeko, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak uste du komenigarria dela Arabako eskulangintza sektoreak inbertsioak egiteko laguntzen deialdia egitea une honetan. Programa hau ez da jarduera bakartu bat, baizik eta ekonomia sustatzeko Arabako Lurralde Historikoaren politikaren esparruan kokatua.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzen 2026ko ekitaldirako deialdi publikoari, zeina foru agindu honi atxikitzen baitzaio.

Bigarrena.- Deialdia arautu da kontuan hartuta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren eskumenen esparruan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak (49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12ko Foru Gobernu Kontseiluarena), bai eta foru agindu honen eranskinean ezarritakoa ere.

Hirugarrena.- Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuko 30502. G/439300/47900302 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 34.024,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Laugarrena.- Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, egintza hau argitaratu

eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, egintza hau argitaratu ondorengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 23a

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREAREN JARDUERARAKO LAGUNTZEN 2026KO DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen helburua da Arabako eskulangintza sektoreari laguntzea eta haren ekoizpen jarduera bultzatzea, norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

Foru Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuko 30502G/439300/47900302 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 34.024,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahal izango da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Eskulangileak, eskulangintza enpresak eta elkarteak eta sektorea ordezkaten duten gainerako erakundeak, zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukatela frogatu dutenak eta, gutxienez, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen Arabako Eskulangintza Erregistro Orokorrean inskribatuta daudenak.

3.2. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten pertsonak edo erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testuategina onesten duen EAEko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zehatutakoek ere.

3.3. Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian.

Enpresen kasuan, Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badute, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Berariaz baztertuta geratzen dira 2026ko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren dirulaguntza izendun bat jaso duten eskatzaileak, baldin eta haren xedea bat badator dirulaguntzaren xedearekin, bai eta haiekin elkartutakoak ere, adjudikazioaren unean hitzarmena sinatuta izan edo ez; baztertuta geratzen dira, halaber, laguntza lerro honen aurreko deialdietan emandako beste dirulaguntza batzuk epe barruan egin edo justifikatu ez dituztenak, salbu eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren iritziz ez-betetze horren arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Honako gastu hauek diruz lagungarritzat joko dira baldin ezarritako epean egiten badira:

1) Prestakuntza ikastaroetako matrikularen kostua, ikastaroa egiteko ezinbesteko material didaktikorako gastuak barne.

“Diruz laguntzekoak izan daitezen, zuzeneko eragina izan beharko dute onuradunaren eta haren langileen enpresa jardueraren hobekuntzan; inguruabar horrek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren iritziz behar adina justifikatuta egon beharko du.”

2) Sustapenerako materialak argitaratu eta prestatzea, esaterako katalogoak, liburuxkak, txartel profesionalak edo antzekoak. Kanpoan utziko dira artisautzako produktuari edo lantegiari ez dagozkion publizitate edo sustapen material guztiak.

3) Artisau produktuen etiketak eta artisau tailerren identifikazio plakak diseinatzeko eta inprimatzeko kostuak.

4) Sare sozialak kudeatzeak eragindako gastuak.

5) Web orri profesionalak eta online dendak (merkataritza elektronikoa) ezartzea eta bardi-seinatzea, jarduketa-ildo horren barruan sartuta domeinua diseinatzeko, sortzeko, itzultzeko eta kontratatzeko hasierako gastuak. Mantentze gastuak eta gisakoak ez dira diruz laguntzekoak.

6) Eskulangintza azoketan edo antzeko lehiaketetan (arte galeriak, nazioarteko erakusketak...) parte hartzea, Arabako Lurralde Historikoaren barruan nahiz kanpoan, izena emateko, tokia alokatzeko, stand muntatzeko, materiala bidaltzeko eta standaren elektrizitate kontsumoko gastuak barne.

Atzerrian gertatzen diren azoken eta antzekoen kasuan, ostatuko gastuek ere jasoko dute dirulaguntza benetan gastatu eta frogatutako zenbatekoa kontuan hartuta. Haren zenbatekoa ezin da izan, kasu honetan, gaueko 80,00 eurotik gorakoa EB barruan eta 100,00 eurotik gorakoa ekintza EBren eremu geografikotik kanpo egiten bada eta azokak/lehiaketak dirauen egunetan baino ez (azoka hasten den egunaren aurreko gaua eta amaitzen den eguneko gaua barne). Halaber, kasu horretan, joan-etorriko gastuek ere jasoko dute dirulaguntza benetan gastatu eta frogatutako zenbatekoagatik, baina zenbatekoa ezingo da izan 300,00 eurotik gorakoa joan-etorrietarako azokako.

Gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, besteak beste, kasu hauetakoren bati badagokie:

- Kanpo garraioaren elementuak.
- Altzariak.
- Web ostatatze edo hosting-a eta mantentze kostuak.
- Marka erregistratzeko gastuak.
- Finantza gastuak.
- BEZa eta gainerako zeharkako zergak, salbu onuradunak konpentsatu edo berreskuratu ezin baditzaie.

– Pertsona edo entitate eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bitartez egindako gastuak.

– Aldizkako gastuak eta/edo errepikatzen direnak nahiz kuota mota oro (Internetara sartzeko kuotak, elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio buletinak...).

– Lokala egokitze materialen gastuak.

– Materiala bidaltzea eta azoketara eramatea, norberaren ibilgailuarekin egiten denean.

– Dirulaguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak edota deialdian xedatutako epean egiten ez direnak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuak uste badu gastuen aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen batez besteko kostuaren aldean, diruz lagundu daitekeen oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

4.2. Diruz lagundu daitezkeen aurreko gastuak jarduera moten araberako dirulaguntzaren gehieneko mugaraino baino ez dira onartuko; muga horiek deialdi honen gehigarrian finkatzen dira.

4.3. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 arteko azpikontratazioa egitea baimentzen da, baina Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko dira.

4.4. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren ustez Arabako eskulangintza sektoreari laguntzen eta/edo haren ekoizpen jarduera bultzatzen edo lehiakortasuna hobetzen behar beste laguntzen ez duten jarduerak baleude, kanpoan utzi ahal izango dira adjudikatu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

5.1. Deialdi honen onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte laguntzaren xede diren jardueren emaitzak, eta gauzatu beharko dituzte 2025eko abenduaren 6tik 2026ko abenduaren 15era bitartean, biak barne.

Horren ondorioetarako, fakturazio eguna izango da jardueraren gauzatzeko eguna eta gastua egin den eguna.

– 2025eko azken hilabetean egindako azoketara joatea ere diruz lagundu ahal izango da, ordainketa lehenago egin den arren, aurrerakin moduan, baldin eta aurreko deialdietan ez badute dirulaguntzarik jaso.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru agindu honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70eraino iritsiko dira (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 7.3 oinarri orokorra).

Foru agindu honen babesean egindako eskaerei dagokien dirulaguntza kalkulatzeko deialdi honen eranskin gisa ageri diren gehieneko muga absolutuak hartu beharko dira kontuan.

6.2. Nolanahi ere, dirulaguntza gehienez 4.500,00 eurokoa izango da onuraduneko, baldin eta deialdi honen 3. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

6.3 Laguntza eskatzen duen pertsona Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, dirulaguntzarako onartzen den oinarria egokituko da araudi honetan ezartzen den gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.4 Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 150,00 euro.

7. artikulua. Prozeduraren instrukziorako eskumena duten organoak

7.1. Prozeduraren instrukzioa Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egingo du.

7.2. Balorazio batzordea honela eratuta egongo da:

– Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekideak: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan dagoen izapide espezifikokoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/pr-ayudas-a-la-actividad-del-sector-artesano-alaves>). Dena dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa ere aplikatuko da.

AFAREN egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/es>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikokoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2026ko maiatzaren 8an amaituko da, egun hori barne.

8.3 Pertsona eskatzaileek egoitza elektronikokoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

1 Eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak deskribatzeko memoria. Bertan datu hauek jarriko dira, besteak beste:

– Azoketan parte hartzeko jardueretarako: azoka bakoitzaren izena eta egingo den tokia eta data.

– Prestakuntza jardueretarako: prestakuntza jardueraren izena eta edukia, zentro antolatzailerak, lekua, egunak eta iraupena.

2. Laguntzen xede diren inbertsio/jarduketeki dagozkien eskaintzen edota aurrekontuen edota fakturen fotokopia. Diruz lagundu daitekeen gastu baten zenbatekoak sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikiari dagokionez; hau da, 40.000,00 euroko edo hori baino gehiagoko gastuaren zenbatekoa obretarako eta 15.000,00 euro gainerakoetarako, entitateak eskatu diren 3 eskaintzak erantsi beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, kasu hauetan izan ezik: diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan ez dagoenean ondasun edo zerbitzu hori egiten edo ematen duen pertsona nahikorik; edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. Hautatutako eskaintza ere adierazi beharko du, eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

3. NAN edo AIZ pertsona fisikoa izanez gero.

4. Hala badagokio, desgaitasun mailaren ziurtagiria edo ebazpena.

8.4. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak laguntza eskaeraren eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.5 Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskuduneari:

- Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa.
- Eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa.

Eskatzaileak ofiziozko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak betebeharrak horiek bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskatzean.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

9.1 Irizpide objektibo hauek erabiliko dira, azkenean onartzen diren eskaeretatik dirulaguntza zeintzuei emango zaien erabakitzeko:

1) Enpresaren lehiakortasuna hobetzea. (gehienez, 40 puntu).

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako emaitza hauek ahalbidetzen dituzten jarduketak: produktuaren berrikuntza; bereizketa; kalitatea areagotzea eta enpresaren kudeaketan eta IKTen erabileran hobekuntzak egitea; irudia, marka, komunikazioa eta bezeroentzako arreta hobetzea; merkatuak handitzea; Arabako eskulangintza beste merkatu batzuetan hedatzea...

Alde egiaztagarririk ez duten espediente guztiei 20 puntuko oinarrizko puntuazioa emango zaie, eta horri honako puntuazio hauek gehituko zaizkie:

– 10 puntu gehiago, azoketara joatea bezalako azokak irekitzea dakarren jardueraren bat aurkezten badute.

– 10 puntu gehiago, irudia, marka eta bezeroarekiko komunikazioa hobetzea dakarren jardueraren bat badute, hala nola web orria sortzea, berritzea edo hobetzea, sare sozialak kudeatzea, artisau produktuak eta artisau tailerrak identifikatzeko plakak etiketatzea eta sustapen materiala egitea.

2) Enpresaren konpromisoa artisautzako jarduerari eusteko. (gehienez, 20 puntu).

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako inguruabar hauek: enpresa berriak abian jartzea, bokazio berriak sustatzea, galtzeko zorian edo oso murriztuta dauden eskulangintzako jarduerari eustea, etengabeko prestakuntza.

Puntu guztiak emango zaizkie beren txostenetan prestakuntza jasotzen duten eskaerei. Bekak ere prestakuntza izango dira. Gainerakoei 15 puntu emango zaizkie.

3) Proiektuaren eraginaren gradua. (gehienez, 15 puntu).

Irizpide hori baloratzeko, proiektuari lotutako fakturazioaren gehikuntza hartuko da kontuan.

Irizpide honetan gehieneko puntuazioa emango zaie web orria sortzea, berritzea edo hobetzea barne hartzen duten eskaerei, eta 10 puntu gainerakoei.

4) Artisauaren profila (gehienez 15 puntu).

Irizpide horren barruan, pertsona juridikoek 5 puntu jasoko dituzte. Bestalde, pertsona fisikoek 5 puntu emango zaizkie eskatzaileak ezaugarri hauetakoren bat betetzen duen bakoitzeko:

– 40 urtetik beherakoa izatea eskabidea egiteko unean (puntuazio hori eman ahal izateko, nortasun agiriaren kopia aurkeztu beharko da eskaera egiten den unean).

– Emakumea izatea (puntuazio hori eman ahal izateko, nortasun agiriaren kopia aurkeztu beharko da).

– Ehuneko 33ko desgaitasun maila edo handiagoa egiaztatzea (puntuazio hori eman ahal izateko, desgaitasun mailaren ziurtagiria edo ebazpena aurkeztu beharko da).

Puntuak batu daitezke hiru baldintza horietako bat baino gehiago metatuz gero.

5) Tailerra landa ingurunean kokatzea (gehienez 10 puntu). 10 puntu emango zaizkie 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan jarduten duten proiektuei, despopulazioaren aurkako borrokan laguntzeko, eta 5 puntu gainerakoei. Udallerri bateko biztanle kopurua zehazteko, Estatistikako Institutu Nazionalak 2025. urteari buruz argitaratutako datuak hartuko dira aintzat (<https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2854>).

9.2 Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren zazpigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko sei hilabete izango dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

10.2 Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, ekintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agintzen den bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintzak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute interesdunaren esku egongo den jatorrizkoarekin, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuradunak du dokumentazioa egiazkoa izatearen ardura.

11.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra onar dezan, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du 2026ko abenduaren 15ean amaituko den epean (egun hori barne):

- Azkenean benetan egin diren jardueren memoria.
- Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak.

– Hiru eskaintzak eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (bakar-bakarrik partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak ezarritako 15.000,00 euroko mugara heldu edo hortik gorakoak izan badira).

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozela.

b) Dirulaguntza honetaz gainera, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoaren duen beste edozein agiri aurkeztekotan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kualifikatuaren konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

Profesionalek jaulkitako fakturen kasuan, erakunde onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du.

11.4. Onuradunak fakturak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuan 2027ko martxoaren 24ra arteko epean, egun hori barne, ordaindu izana justifikatu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren justifikatutako zenbatekoa. Formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da fakturak ordaindu izanaren justifikazioa:

– Banka elektronikoaren bidez egindako banku laburpenak edota transferentzia aginduak, zehaztuta dutenak ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data.

– Tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikularen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da: ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak, hartzai-learen IFZ eta helbidea adierazten dutenak, bai eta esleitutako zerga kuota bereizita ere, eta diruz lagundutako jarduna zehazten dutenak eta tiketa jaulkita dagokion zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak.

– Eskurako ordainketen kasuan, frogagiritzat hartuko da fakturaren erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri sinatua edota zigilatua, zeinetan faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data agertu beharko baitira, betiere zenbateko hori eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen 2026eko araudian ezartzen den zenbatekoa edo handiagoa ez bada.

Profesionalek jaulkitako fakturak direla eta, onuradunak epe horretan bertan aurkeztu beharko ditu aurkeztutako 110 hiru hileko ereduak (atxikipenak eta PFEZren konturako sarrerak), horiek ordaindu izanaren egiaztapena eta 190 ereduak (atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena), egindako atxikipenen sarrera egiaztatuta ahal izateko.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2026ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa (edo haren kontrabalia atzerriko dirutan) edo hortik gorakoa.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arinago egin daitezten, agiriak kasu bakoitzerako ezarritako epemuga baino lehen aurkeztu ahal izango dira.

11.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Baldin eta 6.2. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe; alabaina, beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrekoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

11.10. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

12.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren eman beharko zaio horren berri, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa baitezake.

12.3. Laguntza deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Horretarako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin dela izan 200.000 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Eskaerak egokitzea

Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak –dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahal izango dira ofizioz.

14. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.

ERANSKINA

JARDUERA	GEHIENAKO DIRULAGUNTZA (EURO)
— Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea - Matrikularen kostua eta material didaktikoa	1.000,00
— Web orriak ezartzeko eta eguneratzeko kostua	2.000,00
— Promoziorako materialak lantzea eta editatzea eta etiketak diseinatzea eta inprimatzea	2.500,00
— Sare sozialen kudeaketa	1.500,00
— Azoketan parte hartzea	2.500,00